



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko maiatzaren 29a

53. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena. Izapidetzeko prozedura (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, landa garapenaren eta lurralde orekaren arloko politikari orokorrari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleak programa informatiko berariazkoetan trebatzeko prestakuntza plan bat presta dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako administrazio publikoen behar bezalako sendotasuna bideratzeko zerga arloko neurriak ezartzearen aldeko konpromisoa agertzen du, zerbitzu publikoen eta herritarren ongizatearen progresioa ziurtatze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarraitutasuna eman diezaion Ikastetxe Bateratuen Prestakuntza Planari, erantzun zehatzak ematen baitizkie langileen prestakuntza arloko beharriaz. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plan bat aurkez dezan. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsia (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar bezala egoki dezan guner berri bat Tuterako Reina Sofia Ospitalean eta solairu horretara eraman dezan gaixo onkologikoak artatzeko zerbitzua. Osasun Batzordeak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, mehatxuen eta estortsioaren aurkakoa. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko zer eragin izanen duen, Nafarroako Gobernuaren ustez, higiezin merkatua dela-eta Estatuko Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak zerga-kenkariaren alorrean jarrera kontrajarriak izateak, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (11. or.).

- Galdera, umetokiko lepoko minbiziari aurea hartze aldera zitologiak egiteko maiztasunaren gainean Osasun Departamentuak eginiko gomendioari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (12. or.).
- Galdera, aurten hasi eta 2012ra bitarte batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko plan bakoitzerako aurreikusitako diru kopuruari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik NA-1700 eta NA-4011 errepideak hobetzeko, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (13. or.).
- Galdera, N-121-A errepideko obrek Bidasoa ibaian duten eraginari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik naturguneak kudeatzeko eta kontserbatzeko neurriak hartzeko, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, zergabilketaren eta aurrekontu-finantzaketaren bilakaerari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, *Seguridad en la obra civil* izeneko argitalpenari buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (16. or.).
- Galdera, Erriberriko Antzerki Klasikoaren 2009ko Jaialdiari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdiak, hautapoben eta merezimendu-balioespenaren bidez legelarien bi zerrenda osatzekoak, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontrataziorako. Gainditu dutenen zerrenda (18. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena.

IZAPIDETZEKO PROZEDURA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko maiatzaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2009ko martxoaren 30eko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Legebiltzarreko Mahaiak zuzenketak aurkezteko epe bat irekiko du aurki osatuko den lan-taldeak bere azterlana bukatutakoan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, landa garapenaren eta lurralde orekaren arloko politikari orokorrari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkezturiko jabeldura, landa garapenaren eta lurralde orekaren arloko politikari orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, politika orokorrari buruzko jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioak:

Nafarroa erkidego txikia da eta 600.000 biztanle inguru ditu, baina, hala ere, oso urrun dago gizarte, lurralde- edo garapen-errealitate kohesio-natu eta orekatua izatetik, non herritar guztiek aukera eta baliabide, zerbitzu edo etorkizunerako hautabide berdinak dituzten.

100.000 herritar dira hiri-eremuetatik kanpo bizi direnak, hots, eremu garatu eta zerbitzu publikoak era normalizatuan eskura daitezkeen eremuetatik kanpo, eta Gobernuak abian jarritako neurriek ez dute lortu bi eremu horien arteko desberdintasunak zuzentzea.

Nafarroako gizartearen zati txiki baten egoera are okerragoa da. Nahiko urrun dauden eta eskuarki garapen sozioekonomikotik baztertuak izan diren landa eremuetan bizi dira 20.000 bat herritar, bazterketa eta zailtasun egoeran, eta etorkizunerako aukerarik gabe.

Ezin da esan gizarte garatu, aitzindari eta orekatu batean bizi garela, lurraldearen zati bat hutsik geratzeko arriskuan dagoenean eta herritarren zati bat jarduera tradizionalak uzteko arriskuan dagoenean, horrek ekarriko baitu Nafarroako landa-kultura baliotsu eta garrantzitsua desagertzea eta galtzea.

Hori dela eta, foru parlamentari honek landa garapenaren eta lurralde orekaren arloko politika orokorrari buruzko jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, jakiteko zer helburu lortu nahi diren, zer jarduera-ildo dauden abian eta zein den Gobernuaren jardueraren balantzea Foru Gobernuaren kultur politikaren testuinguru orokorrean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleak programa informatiko berariazkoetan trebatzeko prestakuntza plan bat presta dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako ikastetxeetako irakasleak programa informatiko berariazkoetan trebatzeko prestakuntza plan bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du:

Zioen azalpena:

Nazioaren egoerari buruzko eztabaidan, Gobernuak lehendakariak hezkuntzaren informatizazioa iragarri zuen, eta ikasle guztiak arbel digitalak eta ordenagailu eramangarriak izatearen alde egin zuen. Neurri horiek 2009-2010 ikasturtean jarriko dira abian Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleekin.

Neurri horiek begi onez hartu dira hezkuntza arloko esparru askotan, bai Espainian bai Nafarroan; izan ere, aurrerabide handia ekarriko dute hezkuntza-sistemaren modernizazioari dagokionez, haurren hezkuntza XXI. mendera egokituko baita. Bide horri ekiteko, funtsezkoa da ikastetxeak hornitzea beharrezkoak diren euskarri informatikoe-

kin, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, bereziki, ez baitituzte gutxienezko baliabide informatikoak irakasleek eta ikasleek erabil ditzaten. Horrenbestez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak hezkuntzarako dituen aurrekontuak handitzea.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak tamalgarriztat eta taxugabetzat jo du neurri hori; izan ere, irakasleak ez dira alde aurretik egokitu eta ez dira aurreikusi sistema informatikoetan sartu beharreko edukiak.

Gure ustez, Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak ordenagailu pertsonalak izan ditzaten abian jarriko den neurria egokia da, eta, dirudienez, tamalgarriztat hartu den gauza bakarra da irakasleak prestakuntzarik ez izatea.

Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasle gehienek ordenagailua erabiltzen dute eskuarki lan tresna gisa, baina ikastetxeetan ez dute ez gunerik ez baliabide informatikorik erabilera pertsonalerako, eta horrek galarazten du baliabide informatikoen erabilerak ematen dituen abantailak ahalik eta gehien aprobetxatzea, bai klaseak prestatzeko bai lan egiteko.

Erabaki proposamena:

• Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du berariazko programa informatikoei buruzko prestakuntza plan bat egin dezan Nafarroako ikastetxeetako irakasleentzat, baliabide informatikoen erabileraren normalizazioa helburu duen eredu bat ezartze aldera, ikasgeletan gehiago eta hobeto ikastea ahalbidetuko duen tresna baita.

• Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du beharrezkoak diren baliabideak jar ditzan Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eskura, haiek hezkuntza eredu informatizatu bat abian jarri ahal izateko.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 15ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako administrazio publikoen behar bezalako sendotasuna bideratzeko zerga arloko neurriak ezartzearen aldeko konpromisoa agertzen du, zerbitzu publikoen eta herritarren ongizatearen progresioa ziurtatze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako administrazio publikoen behar bezalako sendotasuna bideratzeko zerga arloko neurriak ezartzearen aldeko konpromisoa agertzen baitu, zerbitzu publikoen eta herritarren ongizatearen progresioa ziurtatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen krisialdi ekonomiko gordina pairatzen ari garela, eta krisi horrek auzitan jarri duela bere ekoizpen-oinarriak zaindu ez dituen eta urte askotan espekulazioan oinarritu den eredu ekonomikoa. Krisialdi ekonomiko horren ondorio nagusiek eta gogorrenek langileengan eta persona behartsunenengan dute eragina.

Hori dela eta, erakundeek betebeharra dute araudi eta eredu ekonomiko baten sustatzaile izateko, halako moduz non berriro halako krisialdi ekonomiko bat gertatzea ekidinen baita. Halaber, hartu ahal diren eta beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditugu enplegua galdu eta egoera gogor eta zailei aurre egin beharrean aurkitzen

direnen egoera arindu ahal izateko; izan ere, horiek ari dira zuzenean pairatzen beraiek sortu ez duten krisi baten eraginak.

Hala, erakunde publikoak erantzuten ari dira, alor guztietan –alde batera utzita alderdi desberdinen iritzi politikoa gobernu bakoitzak krisia kudeatzeko erari buruz–, finantzarioki eta ekoizpen-ehunaren zenbait esparrutan baliabideak txertatzearen bidez, eta baliabide behar horri gehitu behar zaizkio zerbitzu publikoen kalitatea eta hedapena hobetzeko prozesu bat mantentzeko behar diren balaibideak.

Egoera horretan, ikusi da erakunde desberdinek duela hilabete batzuk hartutako erabakiak ez direla egokiak izan; are gehiago, kaltegarriak izan direla; izan ere, neurri horiek ezartzerakoan zehaztutako helburuak lortzen lagundu ordez, gaur egun hain beharrezkoak diren administrazio publikoen munta ahuldu besterik ez dute egin.

Alor fiskalean, Nafarroako Parlamentuan UPN-PSN eta CDNren botoekin onetsitako lege baten bidez kendu egin zen ondareari buruzko zerga, eta haren ordez ez zen ezarri inolako zergarik ondare handientzat eta balio handiko ondasunak dituzten pertsonentzat. Horren ondorioz, dozenaka milioi euro galdu dira, zeinak erabil baitzitezkeen krisiaren ondorioak modu gogorrean pairatzen ari diren pertsonen zerbitzuen zerbitzura jartzeko, bai eta ekonomia eta enplegua aktibatzeko ere.

Era berean, 400 euroen neurria ezarri zen, zeinak baitakar 63 milioi euroko kostua diru publikoarentzat, eta, gainera, orain agerian geratu da neurri horren bidez ez dela lortuko eragin zuzenik kontsumoaren suspertzean, eta, ondorioz, ez dela lortuko baliabide horien zati bat diru publikora itzultzerik zeharkako zergen bilketaren bidez. Halaber, kontuan izan behar da, paradoxa bada ere, 400 euro horiek jasotzeko eskubiderik ez dutenak direla gure foru erkidegoan baliabide gutxien dituzten pertsonak, eta, ondorioz, egoera okerrean daudenak bizi dugun krisi ekonomikoa dela-eta.

Horretaz gain, neurri fiskalei buruzko azken legean –UPN, PSN eta CDNren botoekin onetsitako– mantendu egin zen PFEZeko tarte kopuru

txiki bera, nahiz eta aurreko legegintzaldian PSN, IUN, Aralar, EA eta EAJ taldeak horren aurka agertu ziren, gehikortasunaren aurkakoa zelako eta onuragarria zelako, zuzenean eta lehenik eta behin, errenta altuenei dagokien zuzeneko zergapetzearentzat. Era berean, 2008an tarifa gutxikorrigo bat sendotu zen, UPNk eta CDNk osatutako gehiengoak 2003-2007 legegintzaldian inposatu baitzuen.

Aipatu politika fiskalaren ondorioz, 2008an Nafarroako Gobernuak 150 milioi euroko aurrekontuen murrizketa aplikatu zuen, baliabideen eskurazintasunean babestuta. Hala, Nafarroako Gobernuak eta PSNk iragarri dute jada 2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ere izan dezakeela beste murrizketa baten eragina, eta, zalantzarik gabe, horrek eragina izanen du, 2008an bezala, alor sozialetan eta zerbitzu publikoen aurrerabidean. Alde batetik, murrizketa sozialak ezartzen dira, ez dagoelako baliabiderik, eta, bestetik, Administrazioaren dirubilketarako gaitasuna murrizten da, errenta altuenen eta enpresen onuren mesedetan

Hori dela eta, parlamentu-talde honek uste du beharrezkoa dela Parlamentuak konpromisoa hartzea, ziurtatzeko Administrazioa gai izanen dela era arin eta erabakigarrian aurre egiteko gauegun bizi dugun krisi ekonomikoa bezalako egoerei. Herritarren berme eta eskubideak ezin dira sistema ekonomikoaren gorabeheren menpe utzi;

hain zuzen, herritarrek berme eta eskubide horiek baliatzeko aukera izan behar dute, etengabeko progresio- eta zabalkunde-prozesuan dauden kalitatezko zerbitzu publiko batzuen bidez.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako administrazio publikoen behar bezalako sendotasuna bideratzeko zerga arloko neurriak ezartzearen aldeko konpromisoa agertzen du, zerbitzu publikoen eta herritarren ongizatearen progresioa ziurtatzeko aldera, egoera ekonomiko zehatzen gainetik.

2. Nafarroako Parlamentuak zerga-gehikortasunean sakontzeko konpromisoa agertzen du, zerga-politikak aberastasuna banatzeko egiazko tresnak izan daitezen ahalegintzeko borondatea eta justizia sozialaren aldeko apustua.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sakonki berrius dezan bere zerga politika, ezabatutako zergapetze-arloak berriro aktiba ditzan eta lege proiektu bat aurkez dezan, arestian ezarritako irizpide eta helburuak kontuan hartuta, ahalbidetuko duena administrazio publikoek beren helburuak lortzeko behar dituzten baliabideak ziurtatzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarraitutasuna eman diezaion Ikastetxe Bateratuen Prestakuntza Planari, erantzun zehatzak ematen baitizkie langileen prestakuntza arloko beharrezanei.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarraitutasuna eman diezaion Ikastetxe Bateratuen Prestakuntza Planari, erantzun zehatzak ematen baitizkie langileen prestakuntza arloko beharrezanei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Azken hiru urteotan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kontusail bat aurreikusi du Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan eta arte eskoletan eskaintzen ziren langileentzako etengabeko prestakuntza ikastaroak finantzatzeko, eta emaitza oso ona izan da.

Iragan urteko amaieran, aipatu ikastetxe horiek, zenbait enpresa, entitate eta ikasle ohiren laguntzarekin, ekoizpen-sektore desberdinen azterketak egin zituzten, prestakuntza alorreko beharrezanek hautemate aldera. Azterketa horren ondorioz, prestakuntza eskaintza adostu-hitzartua sortu zen, zeinak jasotzen baitzuen ikastetxeetan ematen diren lanbide-famailiekin zerikusia duten prestakuntza ekintzen sorta bat, 2009an zehar garatzeko.

Apirilean, gure egonezina agertu genion Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseiluari 2009rako aurrekontuetatik kontusail hori kentzearen ondorioz sorturiko arazoak direla-eta.

Uneoro ulertu genuen gure eskaria beste formularen baten bidez bideratuko zela, eta horregatik ez dugu plazaratu sortutako arazoa, baina Hezikuntza Departamentuko eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko arduradunekin izandako elkarrizketen arabera, eta kontuan hartuta zer garaitan gauden, uste dugu, tamalez, aurtan ez zaiola etengabeko prestakuntzako ikastarorik esleituko sare publikoko Lanbide Heziketako ikastetxeei.

Lanbide Heziketako ikastetxe publikoek 2009rako aurkeztu duten eskaintza espezializatuena da, Nafarroako lurralde osoa hartzen du eta Hezikuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeek daukaten ekipamendua erabilita emango lirateke, eguneratuena baita gaur egun. Nafarroako enpresa-sektore desberdinei prestakuntza eskaintza bikain hori ukatzea, are gehiago pairatzen ari garen lan-egoera eta egoera ekonomikoan, ez da neurririk egokiena krisiari aurre egiteko. Une honetan, prestakuntza ezinbestekoa da gure ekoizpen-sistema bizkortzeko eta teknikarien espezializazioa indartzeko, egoera orokorra hobetzen denean sistema lehiakorra izan dadin.

Neurri horrek harridura handiagoa eragin du ikastetxe integratu politeknikoetan; izan ere, Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak arautzen dituen irailaren 4ko 63/2006 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, ikastetxe horien eginkizun oinarrikoetako bat da etengabeko heziketa ematea, bai eta eta langabetuentzako heziketa ere (orain enplegurako prestakuntza), langileen eta produkzio sektoreen eskariari egokitutako erantzunak emateko eta pertsonen ikaskuntza eta hobekuntza ahalbidetzeko bidez osoan zehar.

Gaiaren garrantzia kontuan hartuta, Nafarroako gizarte osoarengan baitu eragina, uste dugu Gobernuak lehendakariak berehala konpondu behar duela egoera hau. Gure aldetik, gure kezka adierazi dugu baita ere Parlamentuko Hezikuntza Batzordean, egun hauetan Lanbide Heziketako ikastetxeetara eginiko bisitan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Nafarroako Gobernua premiatzen da jarraitutasuna eman diezaion Ikastetxe Integratuen Prestakuntza Planari, erantzun zehatzak ematen baitiz-

kie langileen prestakuntza arloko beharrezan, enpresak eskatzen dituen lanbide-profilei dagokienez.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plan bat aurkez dezan.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2009ko maiatzaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plan bat aurkez dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plan bat aurkez dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean aurkez dezan Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plan bat, zeina kontuan hartuko baitu Nafarroako Toki Entitateen Mapa berrantolatzeko sortu den lan-taldeak, foru eta tokiko kidegoen arteko koordinazioa hobetzeko eta Nafarroako Gobernuak horretara bideratzen dituen baliabideak optimizatzea ahalbidetzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar bezala egoki dezan gune berri bat Tuterako Reina Sofía Ospitalean eta solairu horretara eraman dezan gaixo onkologikoak artatzeko zerbitzua.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2009ko maiatzaren 5ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar bezala egoki dezan gune berri bat Tuterako Reina Sofía Ospitalean eta solairu horretara eraman dezan gaixo onkologikoak artatzeko zerbitzua.” Horren jatorria da Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako mozio bat, 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar bezala egoki dezan gune berri bat Tuterako Reina Sofía Ospitalean eta solairu horretara eraman dezan gaixo onkologikoak artatzeko zerbitzua

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du behar bezala egoki dezan gune berri bat Tuterako Reina Sofía Ospitalean eta solairu horretara eraman dezan gaixo onkologikoak artatzeko zerbitzua.

Legegintzaldi honetan zehaztuko da gune berri horren kokapena eta hasiko dira lekua egokitzeko obrak.

Adierazpen instituzionala, mehatxuen eta estortsioaren aurkakoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Gobernuak adierazten du erabat gaitzesten dituela eragile anonimoek ordezkari publikoen, herritarren, enpresaburuen eta erakunde publiko eta pribatuen aurka eginiko mehatxuak eta estortsioa, haien askatasuna eta pentsatzeko eta jarduteko askatasuna alor publiko nahiz pribatuan hertsapenik gabe baliatzeko eskubidea mugatzeko helburuarekin.

Nafarroako Parlamentuak berriro aldarrikatzen du giza eskubideen defentsa, zeinen artean

nabarmentzen baitira bizitzeko eskubidea eta ekintza politikoan eta lanbide jardueretan askatasunez aritzeko eskubidea, herritarren eskubideak mehatxuaren eta estortsioaren bidez mugatu nahi dituztenen mehatxurik eta presiorik gabe.

Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herritarren borondatearen ordezkari den aldetik, adierazpen askatasuna eta pentsamendu askatasuna defendatzen ditu, gure gizarte demokratikoa sostengatzen dituzten ardatzak baitira.”

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer eragin izanen duen, Nafarroako Gobernuaren ustez, higiezin merkatua dela-eta Estatuko Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak zerga-kenkarien alorrean jarrera kontrajarriak izateak.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer eragin izanen duen, Nafarroako Gobernuaren ustez, higiezin merkatua dela-eta Estatuko Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak zerga-kenkarien alorrean jarrera kontrajarriak izateak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Egun hauetan, kontraesan nabarmena geratu da agerian, Estatuko Gobernuak zerga-kenkarien arloan ezarri behar dituen neurrien eta Nafarroako Parlamentuan PSN, CDN eta UPNren botoekin onetsitako arlo bereko neurrien artean.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuaren ustez, zer eragin izanen du higiezin merkatuan Estatuko Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak zerga-kenkarien alorrean jarrera kontrajarriak izateak?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, umetokiko lepoko minbiziari aurrea hartze aldera zitologiak egiteko maiztasunaren gainean Osasun Departamentuak eginiko gomendioari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, umetokiko lepoko minbiziari aurrea hartze aldera zitologiak egiteko maiztasunaren gainean Osasun Departamentuak eginiko gomendioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zein da zure departamentuaren gomendioa umetokiko lepoko minbiziari aurrea hartze aldera zitologiak egiteko maiztasunari dagokionez?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, aurten hasi eta 2012ra bitarte batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko plan bakoitzerako aurreikusitako diru kopuruari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, aurten hasi eta 2012ra bitarte batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko plan bakoitzerako aurreikusitako diru kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek galdera egin zion Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari, jakiteko ea Nafarroako Gobernua batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko planetarako aurreikuspen ekonomikoa egiten ari ote zen (PES-094/09). 2009ko apirilaren 16an, aipatu Departamentuak adierazi zuen, galderari erantzunez, jada aurreikuspen ekonomikoa egin duela Natura 2000 Sarea-ren plangintza lan horiek abian jarri ahal izateko.

Zein da plan bakoitzerako aurreikusitako diru kopurua, aurten hasi eta 2012ra bitarte? Zehaztu kopuruak eta urteak.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik NA-1700 eta NA-4011 errepideak hobetzeko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik NA-1700 eta NA-4011 errepideak hobetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2002-2009 urteetarako Nafarroako Errepideei buruzko II. Plan Zuzendarian ez da aurreikusten inolako jarduketarik NA-1700 eta NA-4011 errepideetan. Kontuan hartuta errepide horien zoladuraren egoera, batez ere NA-1700 errepidearen 7. eta 8. kilometro puntuetan eta NA-4011 1,5. eta 3,5. kilometro puntuetan, parlamentari honek hau jakin nahi du:

– Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik NA-1700 eta NA-4011 errepideak hobetzeko aipatutako zatietan?

– Ez ba du asmorik, Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik aipatu errepideak hobetzeko jarduketak sartzeko Nafarroako Errepideei buruzko III. Plan Zuzendarian?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, N-121-A errepideko obrek Bidasoa ibaian duten eraginari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, N-121-A errepideko obrek Bidasoa ibaian duten eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Galdera

Nabaritzen hasi da Bidasoa ibaia igotzen ari dela N-121-A errepidean egiten ari diren lanen ondorioz. Beharbada hori izan da azken uhaldi handiak Hiriberriko bihurtzeko zentral elektrikoaren parean dagoen zubi esekia eraman izanaren arrazoia. Inguruko bizilagunak kezkatzen hasiak dira ibaiak erriberak hartzeko arriskua dagoelako, beren etxeekin batera, egun pare batean euria eginez gero.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lanak ingurumenaren gaineko eraginari buruzko proiektuaren arabera egiten ari lal dira?

Badakigu Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak duela aste batzuk agindu duela zubiaren habeak jartzean botatako legarraren soberakinak kentzea eta oraindik ez dituztela kendu. Soberakinak ubidean utzita, ez al da uste arriskua hartu dela, horretarako beharrik gabe, soberakinok urak

beherantza eramateko eta, horrela, ubide osoan barreiatzeko?

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik lanen ondorioz Bidasoa ibaian izandako kalteak aztertzeko? Hala bada, nahiko nuke gai horri buruzko informazioa ematea eskualde horretako alkateek osatzen duten jarraipen batzordean.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketza Díaz

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik naturguneak kudeatzeko eta kontserbatzeko neurriak hartzeko.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik naturguneak kudeatzeko eta kontserbatzeko neurriak hartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak hau egin ditu, idatziz erantzun diezaioten:

Zioen azalpena

Nafarroako estepa-eremuetan, hala nola Ablitasko kontserbazio bereziko eremuan, lur orotako ibilgailuetan eta quad-etan kontrolik gabe ibiltzen da jendea landan barrena, batez ere asteburuetan, jaiegunetan eta oporretan, eta landaredia suntsitu, habiak eta txitaldiak zapaldu eta betiko geratzen diren higadura-arrastoak egiten ditu lurzoruan. Horren ondorioz, etengabeko kalteak jasan behar izaten dituzte inguru horietako geomorfologiak, bai eta landare eta animalia espezie askok ere –horietako batzuk katalogatuta edo desagertzeko arriskuan daude, hala nola *Microcnemum coralloides*-a, Dupont hegatzabala eta ganga iberikoa–.

Ez du ezertarako balio Nafarroan naturgune babestuak deklaratzeko, ondoren ez badago egiazko borondaterik Ingurumen Departamentuaren aldetik naturgune horiek modu eraginkorrean zaintzeko.

Galdera

Nafarroako Gobernuak hartu behar al du neurririk halako ibilgailuak Nafarroako estepa-eremuetan ibiltzea mugatzeko eta arautzeko, eta eremu horiek modu egokian kudeatzeko eta zaintzeko?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, zergabilketaren eta aurrekontu-finantzaketaren bilakaerari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, zergabilketaren eta aurrekontu-finantzaketaren bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

Ekonomia-jardueraren jaitsiera bortitzak zuzenean eragiten die zerga-bilketari eta, horrenbestez, aurrekontu-finantzaketari.

Orain dela gutxi, Ekonomiako kontseilariak informatu zuen Nafarroako ekonomia % 2,1 jaitsi

dela 2009ko lehen hiruhilekoan eta atzeraldi ekonomikoa bizi dugula ofizialki.

Datu horiek ez datoz bat Nafarroako Gobernuak 2009ko ekitaldirako egin zituen aurrekontu-aurreikuspenetarako marraztutako agertoki makroekonomikoarekin. Agertoki horri begira, % 1,1eko hazkunde ekonomikoa aurreikusi zen, bai eta 2008an izandako zerga-dirubilketa baino handiagoa izanen zela ere 2009an.

Hori dela eta, ekonomiaren bilakaera negatiboa egiaztatuta eta Nafarroako Gobernuak berak marraztutako agertoki makroekonomikoa beteko ez dela egiaztatua, hauxe jakin nahi dugu:

- Zein izan da, hilez hil, zerga-bilketaren bilakera Nafarroan ekitaldi honetan?

- Zer bilakaera izan du, Nafarroako Gobernuaren hasierako aurreikuspenekin alderatuta?

- Zein da dirusarrerei buruz Nafarroako Gobernuak egiten duen aurreikuspena 2009ko ekitaldi osorako?

- Nafarroako Gobernuak hasiera batean onetsitako gastua eta aurrekontu-inbertsioa izoztu edo murriztuko al ditu?

- Hala baldin bada, zer departamentu, programa eta zenbatekotan egingen ditu murrizketok?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, *Seguridad en la obra civil* izeneko argitalpenari buruzkoa.

PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, *Seguridad en la obra civil* izeneko argitalpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Paula Kasares Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Lan Osasunaren Nafarroako Institutuak argitaratutako *Seguridad en la obra civil* bildumaren gainean galdera hau egin nahi du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaien.

Zioak

Lan Osasunaren Nafarroako Institutuak lan publikoen eremuko arlo desberdinak ukitzen dituen *Seguridad en la obra civil* bilduma argitaratu du

Hori horrela, honako hau da galdera:

– Zer hizkuntzatan egin da aipatu argitalpena?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

Galdera, *Erriberriko Antzerki Klasikoaren 2009ko Jaialdiari buruzkoa.*

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, *Erriberriko Antzerki Klasikoaren 2009ko Jaialdiari buruzkoa.*

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatu-

aren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzuteko.

Zioen azalpena

Hemendik gutxira, uztailaren 17tik abuztuaren 1era hain zuzen ere, Antzerki Klasikoaren 10. Jaialdia egingen da Erriberrin. Hedabideek jaso duten programazioak ondoko arloak jasoko ditu nagusiki:

– La Cavako agertokia

– San Pedroko klaustroa

– E-class

– Jauregia

– Ardoa eta poesia

– Erakusketak

– Profesional nafarren presentzia

Guztira, 22 jarduera dira, eta aurrekontua, berriz, 760.000 eurokoa. Gobernuari babesa ematen dioten alderdien (UPN eta CDN) eta PSN-

PSOEren artean 2009rako hitzartutako aurrekontuaren ondorio da Jaialdiaren egungo programa, eta alderdi honek 160.000 euroko zuzenketa bat aurkeztu zuen, hasierako zenbatekoa igotzeko, baina, halere, sinazen duen eledun honek ez duberri txikiena ere izan ez programazioaren taxutzeaz ez abian den programaren garapenaz ere.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Aurreikusitako programa bakoitzaren kostu zehatza.

2.- Jaialdiaren zuzendariak jasotako ordainsariak eta horrek zer kontratu duen oinarri.

3.- 2009ko programa dela-eta aurreikusitako muntako aldaketak.

4.- La Cavako ikuskizunak gutxitzeko justifikazioa, beste urte batzuetan oinarritzkoa izan baita esparru hori.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdiak, hautaprobaren eta merezimendu-balioespenaren bidez legelarien bi zerrenda osatzekoak, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontrataziorako.

Gainditu dutenen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legelarien bi zerrenda, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontratazioetarako, osatzeko egin zen deialdiari dagokion epaimahaiak (2009ko urtarrilaren 15eko 1. NPAO eta 2009ko urtarrilaren 26ko 11. NAO) onetsi du aldi baterako kontratazioetarako deialdia gainditu duten izengaien zerrenda. Aipatu zerrenda ikusirik, ONETSI DA:

1. Jasotzat ematea aldi baterako kontratazioetarako deialdia gainditu duten izengaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera:

Doménech Alegre, Silvia 75,15 puntu

Landa Elizalde, Esmeralda 55,68 puntu

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda
